

BOLETÍN Nº 19 - 13 de febrero de 2009

- II. ADMINISTRACIÓN LOCAL DE NAVARRA
 - 2.1. ORDENANZAS Y OTRAS DISPOSICIONES GENERALES

MENDIGORRÍA

Aprobación definitiva de la ordenanza reguladora del tráfico en el casco urbano de Mendigorria

El Pleno del Ayuntamiento de Mendigorria, en sesión ordinaria celebrada el día 30 de octubre de 2008, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora del tráfico en el casco urbano de Mendigorria.

Habiendo transcurrido el plazo de información pública de treinta días, contados a partir de la publicación del anterior acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra número 146, del día 1 de diciembre de 2008, y habiéndose resuelto las reclamaciones, reparos y observaciones al mismo, en sesión extraordinaria del Pleno de fecha 16 de enero de 2009, se ha aprobado, de conformidad con el Artículo 325.1 de la Ley Foral 9/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra.

ORDENANZA REGULADORA DEL TRÁFICO EN EL CASCO URBANO DE MENDIGORRÍA

Artículo 1. Fundamento legal y Objeto.

Es fundamento legal de la presente Ordenanza lo establecido en el artículo 25.2.b de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y en el artículo 7 del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

Es objeto de la presente Ordenanza la ordenación, control y regulación del tráfico en las vías urbanas de este Municipio.

Las normas de esta Ordenanza complementan lo dispuesto en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, y en el Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Circulación para la aplicación y desarrollo del Real Decreto Legislativo 339/1990.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Las disposiciones de esta Ordenanza serán de aplicación en todas las vías urbanas del Municipio de Mendigorria, entendiéndose como tales, toda vía pública de titularidad municipal situada dentro de poblado.

Artículo 3. Señalización.

Corresponde al Ayuntamiento la señalización de las vías urbanas.

Las señales de reglamentación colocadas al lado o en la vertical de la señal de entrada o poblado se aplica a todo el poblado, excepto si dentro de este hubiera señales distintas para tramos concretos de la red viaria municipal.

No se podrá instalar, retirar, trasladar, ocultar o modificar las señales colocadas en la vía urbana sin previa autorización del Ayuntamiento. Además, se prohíbe modificar su contenido o colocar sobre ellas o en sus inmediaciones placas, carteles, marcas u otros objetos que puedan inducir a confusión, reducir su visibilidad o su eficacia, deslumbrar a los usuarios de la vía o distraer su atención.

Cuando razones de seguridad o fluidez de la circulación lo aconsejen, podrá ordenarse por la autoridad competente otro sentido de circulación, la prohibición total o parcial de acceso a partes de las vías, el seguimiento obligatorio de itinerarios concretos o la utilización de arcones o carriles en sentido opuesto al normalmente previsto.

Para evitar el entorpecimiento a la circulación y garantizar su fluidez, se podrán imponer restricciones o limitaciones a determinados vehículos y para vías concretas, que serán obligatorias para los usuarios afectados.

El cierre de la circulación de una vía objeto de la legislación sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, sólo se realizará con carácter excepcional y deberá ser expresamente autorizado por la autoridad local responsable de la regulación del tráfico.

Las señales y órdenes de los agentes de circulación prevalecerán sobre las demás señales.

Artículo 4. Obstáculos en la vía pública.

1. Se prohíbe la colocación en la vía pública de cualquier obstáculo que pueda dificultar el paso normal de vehículos o peatones, salvo que sea expresamente autorizado por el Ayuntamiento cuando concurren circunstancias especiales. En dicha autorización se establecerán las condiciones que deberán respetarse. El coste de la señalización y colocación de elementos de seguridad serán a costa del interesado. Quienes hubieran creado sobre la vía algún obstáculo o peligro deberán hacerlo desaparecer lo antes posible, y adoptarán las medidas para que pueda ser advertido por los usuarios de la vía, dando cuenta inmediatamente a las Autoridades.

El Ayuntamiento establecerá zonas destinadas a la carga y descarga, bien a iniciativa propia o a petición de los particulares con el pago de la tasa correspondiente. Esta zona reservada se indicará expresamente con las señales correspondientes y con la limitación horaria correspondiente.

Queda prohibido depositar la mercancía en la calzada, en el arcén y zonas peatonales. Se efectuarán, en lo posible, por el lado del vehículo más próximo al borde de la calzada empleando los medios suficientes para que se realice con celeridad.

También, a iniciativa del Ayuntamiento o del particular (mediante el pago de una tasa que se regulará en la ordenanza correspondiente), podrán establecerse vados para el paso de vehículos a través de la acera a un inmueble o solar.

2. El Ayuntamiento procederá, cuando tenga el correspondiente servicio, a la retirada de los vehículos que obstaculicen las zonas debidamente autorizadas y señalizadas como vados y carga y descarga.

Artículo 5. Parada y estacionamiento.

A.-Parada.

1. Se considera parada la inmovilización del vehículo por un tiempo que no exceda de dos minutos, en la cual el conductor no podrá abandonar el vehículo. Si excepcionalmente lo hiciera, deberá estar lo suficientemente cerca como para retirarlo en caso de que las circunstancias lo exijan.

2. La parada se efectuará lo más cerca de la acera derecha si son vías de doble sentido; si son de sentido único, se podrá efectuar también en el lado izquierdo.

En las calles sin acera, la parada deberá hacerse dejando un mínimo de 0'50 metros desde la fachada más próxima.

3. Queda prohibido parar:

-Donde las señales lo prohíban.

-En las intersecciones y en sus proximidades si se dificulta el giro a otros vehículos.

-En los pasos para peatones.

-En las zonas señalizadas para uso exclusivo de minusválidos.

-En las aceras y zonas excluidas del tráfico.

-En los lugares, en general, que se señalan en la normativa estatal.

-En las puertas de las viviendas y locales comerciales, debiendo de garantizarse en cualquier caso el acceso a los mismos a personas con movilidad reducida y a silleteras de niños.

B.-Estacionamiento.

1. Los vehículos podrán estacionar en fila, es decir, paralelamente a la acera, en batería, perpendicularmente a la acera o semibatería, es decir, oblicuamente, todo ello conforme indiquen las señales de tráfico, tanto vertical como horizontalmente.

2. La norma general es que el estacionamiento se haga en fila o cordón. La excepción a ello se señalará expresamente mediante marcas viales en el pavimento.

3. El estacionamiento se hará lo más pegado posible a la acera, dejando una distancia máxima de 50 centímetros entre las ruedas y el bordillo, o de 50 centímetros hasta la edificación, en aquellas calles que no tengan acera.

4. Los vehículos estacionados en pendiente ascendente, deberán dejar colocada la primera velocidad, y cuando estén estacionados en pendiente descendente, deberán dejar

colocada la marcha atrás. Los conductores deberán dejar el vehículo estacionado de tal modo que no se pueda mover, siendo responsables de ello.

5. Este Ayuntamiento adoptará las medidas adecuadas para facilitar el estacionamiento de los vehículos automóviles pertenecientes a los minusválidos con problemas graves de movilidad.

6. Queda prohibido estacionar:

a) En los lugares que se indique mediante señales tal prohibición.

b) En todos los casos en que está prohibida la parada.

c) En las zonas señalizadas para carga y descarga.

d) En las zonas correctamente señalizadas como vados.

e) En doble fila, tanto si en la primera fila hay un coche como si hay un contenedor o algún elemento de protección.

f) En las vías que, por su anchura, no permitan el paso de más de un vehículo.

g) En las aceras.

h) En los lugares que eventualmente se indiquen para la realización de obras, mudanzas, mercadillo o actos públicos, siempre que así se indique con una antelación de, al menos, veinticuatro horas.

i) En los lugares que tengan rebajado el bordillo para permitir el tránsito de minusválidos

j) En las isletas o medianas centrales.

k) En los lugares que, en su caso, hubieren sido habilitados para el estacionamiento con limitación horaria sin colocar el distintivo que lo autoriza o cuando, colocado, se mantenga estacionado el vehículo en exceso sobre el tiempo máximo establecido en esta Ordenanza.

l) En todo lugar no indicado anteriormente que constituya un riesgo para peatones, animales o vehículos.

ll) Se prohíbe el estacionamiento de camiones salvo en las zonas habilitadas.

Artículo 6. Límites de velocidad.

1. La velocidad máxima que se establece para la travesía de Mendigorriá es de 30 kilómetros por hora.

2. La velocidad máxima que se establece para el casco urbano de Mendigorriá es de 30 kilómetros por hora.

Artículo 7. Limitaciones a la circulación.

1. No podrán circular dentro del casco urbano los vehículos que transporten mercancías peligrosas.
2. No podrán circular por el interior del casco urbano vehículos dotados de roulottes o autocaravanas, así como vehículos de gran tonelaje.
3. No podrán circular por el interior del casco urbano vehículos dotados de megafonía exterior.
4. Los vehículos señalados en el apartado anterior necesitarán autorización municipal para poder circular dentro del casco urbano. En la misma se establecerán las condiciones oportunas.

Artículo 8. Circulación de ciclomotores, motocicletas y ciclos.

A.-Ciclomotores y motocicletas.

1. Los ciclomotores y motocicletas deberán circular sin emitir ruidos excesivos, debiendo llevar un tubo de escape homologado y evitar los acelerones.
2. Dentro del casco urbano no podrán circular paralelamente.
3. Los ciclomotores deberán llevar en el guardabarros posterior, debidamente sujeta, la placa de identificación correspondiente.
4. En lo que se refiere al estacionamiento, se hará en las zonas debidamente adecuadas para este tipo de vehículos.

B.-Ciclos.

1. Los ciclos que, por construcción, no puedan ser ocupados por más de una persona, podrán transportar, no obstante, cuando el conductor sea mayor de edad, un menor de hasta siete años en asiento adicional que habrá de ser homologado.
2. No se podrá circular con estos vehículos por la acera, aunque sí por las zonas peatonales, a una velocidad máxima de 10 km/h, teniendo preferencia siempre los peatones, excepto en las vías reservadas para ciclos o vías ciclistas.
3. Las bicicletas estarán dotadas de los elementos reflectantes que, debidamente homologados, se determinan en el Reglamento General de Vehículos.

Artículo 9. Vehículos abandonados.

1. Se presumirá que un vehículo está abandonado en los casos determinados en la Normativa sobre Tráfico (artículo 71 del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial).
2. En virtud del Artículo 3 de la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, los vehículos abandonados tienen la consideración de residuos urbanos.

3. La Autoridad Municipal se encargará de retirarlos al lugar que asigne. Los gastos de traslado y permanencia serán a cargo del titular y será necesario su abono para retirarlo, en los términos en que se señale en la Ordenanza correspondiente.

Artículo 10. Otras normas.

1. Cualquier conductor que con su vehículo produzca ruidos o humos excesivos, podrá ser requerido por la Autoridad Local para que repare los desperfectos, pudiendo la Autoridad inmovilizar el vehículo si dicha reparación no se produce y formulando la correspondiente denuncia.

2. Se prohíbe circular con el motor excesivamente revolucionado, dando acelerones o ruidos excesivos, especialmente en horario nocturno.

3. Se prohíbe utilizar las señales acústicas en el casco urbano, salvo peligro evidente o urgente necesidad.

4. El alumbrado entre el ocaso y la salida del sol, y en condiciones de visibilidad diversas, será el de corto alcance o cruce; en ningún caso se podrá utilizar alumbrado de carretera en el casco urbano. Se procederá a la inmovilización de los vehículos que no posean el alumbrado correspondiente y que supongan un peligro para los demás usuarios de la vía. Las motocicletas que circulen por la vía urbana están obligadas a utilizar durante todo el día el alumbrado de corto alcance o cruce.

Artículo 11. Infracciones y sanciones.

Se consideran infracciones las acciones u omisiones contrarias a esta Ordenanza. Asimismo se considerarán estas infracciones como que lo son a la Ley de Tráfico y al Reglamento (Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, y Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Circulación para la aplicación y desarrollo del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo).

Las infracciones a las disposiciones de la presente Ordenanza se sancionarán por el Alcalde, siguiendo el procedimiento del Real Decreto 320/1994, de 25 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento Sancionador en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, y del Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento del Procedimiento para el Ejercicio de la Potestad Sancionadora, o Normativa que lo sustituya.

El importe de las sanciones reguladas por esta Ordenanza, las cuales pueden ser consideradas en su mayoría como leves, ascenderá a 40 euros. Dicho importe será actualizado anualmente por el Ayuntamiento de Mendigorriá, siendo publicado para su conocimiento junto con las Tasas Municipales.

En virtud de los artículos 4 y 5 del Real Decreto 320/1994, de 25 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento Sancionador en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, la denuncia de las infracciones que se observen podrá hacerse por los Agentes de la Autoridad o por cualquier persona que vea la infracción.

Artículo 12. Prescripción.

El plazo de prescripción de las infracciones será de tres meses para las infracciones leves, seis meses para las infracciones graves y un año para las infracciones muy graves.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente Ordenanza será objeto de su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Navarra, entrando en vigor una vez haya transcurrido el plazo establecido en el Artículo 65.2 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Mendigorría, 20 de enero de 2009.-El Alcalde-Presidente, Javier Osés Zúñiga.

Código del anuncio: L0900936

19. ALDIZKARIA - 2009ko otsailaren 13a

- II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA
 - 2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

MENDIGORRIA

Ordenantza, Mendigorriko hiriguneko trafikoa arautzen duena. Behin betiko onespena

Mendigorriko Udalak, 2008ko urriaren 30ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Mendigorriko hiriguneko trafikoa arautzen duen ordenantza.

Aitzineko erabakia 2008ko 146. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 1ean, eta handik goiti hogeita hamar eguneko epea iragan denez inork erreklamazio, kexa edo oharrik egin gabe, behin betikoz onetsizat jo da 2009ko urtarrilaren 16an egin osoko bilkura berezian; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 9/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluari jarraikiz.

ORDENANTZA, MENDIGORRIKO HIRIGUNeko TRAFIKOA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. Legezko oinarria eta xedea.

Ordenantza honen legezko oinarria ondokoetan ezarritakoa da: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.b artikulua eta Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikulua.

Ordenantza honen xedea da udalerrri honetako hiri bideetako trafikoa antolatu, kontrolatu eta arautzea.

Ordenantza honen arauak ondokoetan xedatutakoaren osagarri dira: Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretua eta azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua, 339/1990 Legegintzako Errege Dekretua aplikatu eta garatzeko Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra onetsi zuena.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza honen xedapenak aplikatuko dira Mendigorriko udalerriko hiri bide guztietan, alegia, herri barnean diren udal titulartasuneko bide publiko guztietan.

3. artikulua. Seinalizazioa.

Hiri bideetako seinaleak Udalaren egitekoa da.

Arautzeko seinaleak, hiriguneko sarrerako seinalearen aldean edo bertikalean paraturik daudenak, hirigune osoan aplikatzen dira, salbu eta horren barnean bertzelako seinaleak badaude, udal bideen sareko tarte zehatzetarako.

Hiri bideetako seinaleak ezin dira ezarri, kendu, eraman, ezkutatu edo aldatu Udalak aitzinetik baimena eman gabe. Orobat debeku da seinaleen edukia aldatzea edo haien gainean edo inguruan plakak, afixak, markak edo nahasteko bidea eman, haien ikuspena edo eragingarritasuna murriztu, erabiltzaileak itsutu edo arreta galarazten ahal dieten bertzelako zerak paratzea.

Zirkulazioaren segurtasun edo arintasun arrazoiek hala eskatzen dutenean, agintari eskudunek agintzen ahal izanen dute zirkulazio noranzkoaren aldaketa, bide horietako tarte batzuetarako sarbideak osorik edo hein batean debekatzea, ibilbide jakin batzuk jarraiki beharra edo bazterbideak edo ohikoaren kontrako norabidea duten erreiak erabiltzea.

Zirkulazioari traba ez egiteko eta haren arintasuna bermatzeko, murriztapenak edo mugak ezartzen ahal izanen zaizkie halako ibilgailu batzuei, bide zehatz batzuetan, ukitutako erabiltzaileendako nahitaezkoak izanen direnak.

Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legediaren xedeko bide batean zirkulazioa kentzen bada, salbuespenez eginen da eta trafikoa arautzeko eskumena duen tokiko agintariak espresuki baimenduta.

Bidezainen seinale eta aginduek indar handiagoa dute gainerako seinaleek baino.

4. artikulua. Oztopoak eremu publikoan.

1. Debeku da oinezkoen edo ibilgailuen ohiko trafikoa eragotz dezakeen edozein oztopo eremu publikoan paratzea, salbu eta Udalak espresuki baimentzen badu, inguruabar bereziak biltzen direnean. Baimen horretan ezarriko dira bete behar diren baldintzak. Seinaleak eta segurtasun elementuak paratzearen kostua interesdunaren kontura izanen da. Bidean oztopoa paratu edo arriskua sortu dutenek ahalik lasterren kendu beharko dute eta neurriak hartuko dituzte bidearen erabiltzaileek ikus dezaten. Halaber, agintariei emanen diete berehala horren berri.

Udalak zamalanetarako eremuak ezarriko ditu, bere ekimenez edo partikularrek eskatuta, dagokien tasa ordaindurik. Eremu horiek espresuki adieraziko dira dagozkien seinaleen eta ordutegi mugatuaren bidez.

Debeku da salgaiak galtzadan, bazterbidean eta oinezkoendako eremuetan uztea. Lanak, ahal delarik, eginen dira ibilgailuak galtzadaren bazterretik gertuen duen aldetik, eta behar diren baliabideak erabilita azkar burutu ahal izateko.

Halaber, Udalaren zein partikularren ekimenez (dagokion ordenantzak arautuko duen tasa ordaindurik), pasabideak ezartzen ahalko dira, ibilgailuak higiezin edo orube batera irits daitezten espaloian barna.

2. Udalak, horretarako zerbitzua duenean, kenduko ditu zamalanetarako eta pasabiderako eremu gisa behar bezala baimendurik eta seinalaturik dauden eremuak tratatzen dituzten ibilgailuak.

5. artikulua. Gelditzea eta aparkatzea.

A.-Gelditzea.

1. Geldiketa da ibilgailu bat bi minutu baino gutiagoan ez mugitzea, gidaria kanporatu ahal izan gabe. Salbuespen gisa, gidaria aldentzen bada, hurbil egon beharko du, egoerak behartuz gero, kendu ahal izateko.

2. Geldiketa eginen da eskuineko espaloitik ahalik eta gertuen, bi noranzko dituen bidea denean; bakarrekoa denean, ezkerreko aldean ere gelditzen ahal izanen da.

Espaloirik gabeko kaleetan, geldiketa eginen da gutxienez ere 0,50 metro utzita gertuen dagoen fatxadatik.

3. Debeku da geldiketa egitea:

-Seinaleek debekatzen duten tokietan.

-Bidegurutzetan eta haien inguruan, gainerako ibilgailuek bira egin dezaten trabatzen zaienean.

-Oinezkoendako pasabideetan.

-Minusbaliatuek bertze inork ez erabiltzeko seinaleztatutako tokietan.

-Espaloietan eta trafikoa debekatutako eremuetan.

-Estatuko araudiak, oro har, adierazten dituen tokietan.

-Etxebizitza eta saltokietako ate ondoetan, eta betiere bermatu beharko da mugikortasun urria duten pertsonak eta haurren aulkitxoak bertara sartu ahal izatea.

B.-Aparkatzea.

1. Ibilgailuak ilaran aparka daitezke, hau da, espaloiarekiko paraleloan; baterian, hots, espaloiarekiko perpendikularrean eta erdi baterian, zeharka, hori guztia trafiko seinaleek, bertikalek nola horizontalek, adierazten dutenari jarraikiz.

2. Arau orokorra da ilaran edo lerroan aparkatzea. Horren salbuespena espresuki seinaleztatuko da zoladurako bide-marken bidez.

3. Espaloitik ahalik eta hurbilen aparkatuko da, gehienez ere 50 zentimetroko aldea utzirik gurpilen eta ertzaren artean, edo 50 zentimetro eraikinetaraino, espaloirik ez duten kaleetan.

4. Goranzko aldapan aparkatutako ibilgailuak, lehen abiadura jarrita utziko da, eta beheranzko aldapan aparkatuz gero, atzerako abiadura jarriko da. Gidariak ibilgailua aparkatuko dute hura ez mugitzeko maneran, eta horren erantzule izanen dira.

5. Udal honek neurri egokiak hartuko ditu mugikortasun arazo larriak dituzten minusbaliatuen ibilgailuak aparkatzea erraztu beharrez.

6. Debeku da aparkatzea:

- a) Debeku hori seinale bidez adierazten den tokietan.
- b) Gelditzea debekatua dagoen kasu guztietan.
- c) Zamalanetarako seinaleak dauden tokietan.
- d) Pasabide gisa behar bezala seinaleztatutako eramuetan.
- e) Bigarren ilaran, lehenbiziko ilaran ibilgailua nahiz edukiontzia dagoenean, edo babeseko elementuren bat dagoenean ere.
- f) Haien zabaleragatik, bakarrik ibilgailu bat pasatzen ahal den bideetan.
- g) Espaloietan.
- h) Obrak, aldaerak, merkatu txikiak edo ekitaldi publikoak egin ahal izateko zehazten diren tokietan, betiere horren berri ematen bada gutienez ere hogeita lau ordu lehenagotik.
- i) Zintarria apaldua duten tokietan, minusbaliatuak igaro daitezten.
- j) Erdiko babesgune edo erdibitzaileetan.
- k) Ordutegi mugatuan aparkatzeko gaitutako lekuetan, horretarako baimena ematen duen erakusgarria jarri gabe edo erakusgarria jarrita ere ibilgailua edukitzen denean ordenantza honek gehienez ere baimentzen duen denbora gaindituz.
- l) Aurretik adierazi ez diren gainerako tokietan, oinezkoen, ibilgailuen edo animalien arriskutsua denean.
- ll) Debeku da kamioiak aparkatzea, horretarako paratzen diren tokietan izan ezik.

6. artikulua. Abiadura mugak.

- 1. Mendigorriko zeharbidean, gehieneko abiadura 30 kilometro/ordua da.
- 2. Mendigorriko hirigunean, gehieneko abiadura 30 kilometro/ordua da.

7. artikulua. Zirkulazioa mugatzea.

- 1. Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek debeku dute hirigunearen barnean ibiltzea.
- 2. Roulottak eramaten dituzten ibilgailuek edo autokarabanek ezin izanen dute hirigunearen barnean ibili, ezta tonelaje handiko ibilgailuek ere.
- 3. Kanpoko megafonia duten ibilgailuek ezin izanen dute hirigunearen barnean ibili.
- 4. Aurreko atalean aipatu ibilgailuek udal baimena beharko dute hirigunearen barnean ibiltzeko. Hartan, behar diren baldintzak ezarriko dira.

8. artikulua. Bizikleta, ziklomotor eta motozikleten zirkulazioa.

A.-Ziklomotor eta motozikletak.

1. Ziklomotor eta motozikletak ibiliko dira gehiegizko zaratarik sortu gabe, homologatua dagoen ke-hodia dutela eta zakarki azeleratu gabe.
2. Hirigunean zehar debeku dute paraleloan zirkulatzea.
3. Ziklomotorrek identifikazio plaka eraman beharko dute, atzeko lohi-babesean behar bezala lotua.
4. Ibilgailu horiek berendako prestatutako eremuetan aparkatuko dira.

B.-Bizikletak.

1. Pertsona bakar batendako eginak diren bizikletetan, hala ere, garraiatzen ahalko da, gidaria adinez nagusi denean, adin txikiko bat, gehienez ere zazpi urtekoa, eserleku gehigarri eta homologatu batean.
2. Ibilgailu horiek ezin dira zirkulatu espaloietan zehar. Bai ordea oinezkoendako eremuetan, gehienez ere 10 km/h-ko abiaduran. Lehentasuna beti oinezkoena izanen da, salbu eta bizikletendako erreserbatutako bideetan edo bidegorrietan.
3. Bizikletek behar bezala homologaturiko isladatzaileak eraman beharko dituzte, Ibilgailuen gaineko erregelamendu Orokorrean zehazten direnak.

9. artikulua. Ibilgailu abandonatuak.

1. Ibilgailu bat abandonatutzat hartuko da trafikoaren gaineko araudian zehazten diren kasuetan (Trafikoari, Ibilgailu motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 71. artikulua).
2. Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 3. artikuluaaren arabera, ibilgailu abandonatuak hiri hondakintzat hartuko dira.
3. Udal agintaritzak leku bat esleituko die eta harat eramanen ditu. Eraman eta altxatzeko gastuak titularraren kontura izanen dira eta ibilgailua eramateko ordaindu beharko dira, dagokion ordenantzak adierazten duen moduan.

10. artikulua. Bertze arau batzuk.

1. Ibilgailu batek gehiegizko asotsa edo kea ateratzen badu, tokiko agintariek eskatzen ahalko diote gidariari matxura konpontzeko. Horrela egin ezean, agintaritzak ibilgetzen ahalko du ibilgailua, eta dagokion salaketa aurkezten ahalko.
2. Debeku da zirkulatzea motorrari bira gehiegi eginaraziz, zakarki azeleratuz edo gehiegizko zarata sortuz, batez ere gauean.
3. Debeku da hirigunean seinale akustikoak erabiltzea, arrisku nabaria edo behar larria ez bada.

4. Eguzkia sartzan denetik atera arteko orduetan, eta ikuspen bereziko egoeretan, argi laburrak piztuko dira; argi luzeak ez dira inola ere erabiliko hirigunean. Dagozkien argiak eduki ez eta bidearen gainerako erabiltzaileendako arriskua diren ibilgailuak ibilgetzen ahalko dira. Hiri bideetan zirkulatzen diren motozikletek argi laburrak pizturik eraman behar dituzte egun osoan.

11. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Arau-haustetzat hartzen dira ordenantza honetan ezarritakoaren kontrako ekintzak edo omisioak. Halaber, arau-hauste horiek Trafikoaren gaineko Legearen eta Erregelamenduaren kontrakoak balira bezala (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onesten duen martxoaren 2ko 339/90 Legegintzako Errege Dekretua eta testu hori aplikatu eta garatzeko Zirkulazioaren gaineko Erregelamendu Orokorra onesten duen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua).

Ordenantza honen xedapenen aurkako arau-haustek alkateak zehatuko ditu, eta horretarako arau honetako prozedura erabiliko da: Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloko Zehapen Prozeduraren Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretua eta Zehapen Ahalmenaz Baliatzeko prozeduraren Erregelamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua edo hura ordezkatzeko duen araudian ezarritakoa.

Ordenantza honek arautzen dituen zehapenek, gehienak arintzat hartzen ahal baitira, 40 euro egingen dute. Zenbateko hori urtero eguneratuko du Mendigorriko Udalak, eta udal tasekin batera argitaratuko da, jakin dadin.

Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloko Zehapen Prozeduraren Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 4. eta 5. artikuluen arabera, ikusten diren arau-hausteen salaketa agintaritzaren agenteek egiten ahal dute, edo arau-haustea ikusten duen edonork.

12. artikulua. Preskripzioa.

Arau-hausteen preskripzio epea hiru hilabete da arau-hauste arinetarako, sei hilabete arau-hauste larrietarako, eta urte bat arau-hauste oso larrietarako.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu ondoan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea iraganda.

Mendigorrian, 2009ko urtarrilaren 20an.-Alkate udalburua, Javier Osés Zúñiga.

Iragarkiaren kodea: L0900936